



## UDALBILTZA

### KONTSEILU NAGUSIA

#### **UDALBILTZAKO PARTZUERGOAREN OHIKO KONTSEILU NAGUSIA. 2020ko EKAINAREN 5ean EGINDAKO BILERAREN AKTA**

#### **0. LABURPENA**

1. Aurreko Kontseilu Nagusiko aktaren onarpena.
2. Lehendakariaren ebazpenen berri eman (atxikita doa zerrenda).
3. 2019ko urtearen balorazio orokorra.
4. 2019ko urtearen kitapenak: Partzuergokoa eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoko kontuen onarpena (atxikita doaz kontu-hartzailearen txostenak).
5. 2020ko aurrekontuak: Partzuergoa eta Euskal Garapen eta Kohesio Fundoa
6. 2020ko proiektuak
7. Urteko lan egutegiaren onarpena
8. Partzuergokide berrien onarpena: Legorretako udala.
9. Soldata igoeren onarpena.
10. Galderak eta iradokizunak.

Bilera Udalbiltzaren bideokonferentzia sistemaren bitartez burutu zen, bi mila eta hogeiko ekainaren 5ean, arratsaldeko 17:30etan, bigarren deialdian eta parte hartu zuten azpian zerrendatuko diren udalerrietako ordezkariak.

	<b>UDALA</b>
1	Aduna
2	Aizarnazabal
3	Ajangiz
4	Alegia
5	Altzo
6	Amoroto
7	Antzuola
8	Arakaldo
9	Asteasu
10	Astigarraga
11	Ataun



12	Aulesti
13	Barrundia
14	Bera
15	Berastegi
16	Berriatua
17	Ea
18	Errigoiti
19	Etxarri-Aranaz
20	Etxauri
21	Gatika
22	Getaria
23	Hernani
24	Lizartza
25	Munitibar
26	Muxika
27	Oiartzun
28	Ondarroa
29	Orexa
30	Segura
31	Usurbil
32	Zaldibia
33	Zestoa

Ez zuten parte hartu udalerrri hauek: Anoeta, Araitz, Aramaio, Arantza, Arbizu, Areso, Arratzu, Artea, Bakaiku, Basaburua, Elduain, Etxalar, Ezkio, Goizueta, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Itsasondo, Iturmendi, Lakuntza, Larrabetzu, Leaburu-Txarama, Legutio, Leitza, Lezo, Mañaria, Meñaka, Olazti, Oñati, Orendain, Otxandio, Uharte-Arakil, Urdiain, Zerain, Ziordia, Ziortza Bolibar, Zizurkil.

Jabier Asurmendi Udalbiltza Partzuergoaren lehendakari eta zuzendari jaunak zuzendu du bilkura.

Udalbiltzako teknikari hauek hitzarekin baina botoa emateko eskubiderik gabe parte hartu dute: Ainara Iraeta andereak eta Arkaitz Almortza zein Inhar Iraizotz jaunek.

Era berean, parte hartu du Patxi Lapatza-Gortazarrek Udalbiltza Partzuergoko idazkari kontu-hartzaile moduan.

Quoruma dagoela ziurtatzean, hasiera eman zaio bilerari, honako edukiak landuz:

### **LEHENA.- Aurreko aktaren onarpena**

---



Jabier Asurmendi lehendakariak egin du puntu honen azalpena. Zuzenketa edo ekarpenik proposatu ez denez, aurreko Kontseilu Nagusiaren bilkuraren akta onetsi da. Bozka guztiak aldekoak izan dira.

### **BIGARRENA.- Lehendakariaren ebazpenen berri eman**

Lehendakari jaunak azkeneko Kontseilu Nagusiaz geroztik emandako ebazpenen laburpena jasotzen duen zerrenda emailez bidali zela gogorarazi du. Alta, gastuen onarpena ez diren gainerako ebazpenen azalpen laburra eman du, hala nola:

- 6/2019 LE: Lurgida proiekturako teknikariaren izendapena. Teknikarien lan poltsaren zerrendari jarraituta, Lurgida gida turistikoaren edukia osatzeko teknikari bezala Iraia Santa Cruz Torres

kontratatu zela 20 orduko lanaldiarekin. Kontratua 2019ko urriaren 14an hasi zen eta 2020ko maiatzaren 10ean amaitu zen.

- 45/2019 LE: Anai Artea Elkartearen hitzarmena Euskal Herriko memorialela egiteko: 42.000 €.

- 46/2019 LE: Bizipoza eta Oinherriekin hitzarmenak: 2.500€ eta 2.500 € hurrenez hurren.

### **HIRUGARRENA.- 2019ko urtearen balorazio orokorra.**

Asteasuko ordezkari bezala Batzorde Eragileko kide den Pili Legarra andereak, Berriatuako ordezkari bezala Batzorde Eragileko kide den Jon Arriola jaunak eta



Udalbiltza Partzuergoko lehendakaria eta zuzendaria den Jabi Asurmendi jaunak egin dute puntu honen azalpena.

Lehenik, LURGIDA (mapa turistikoa) proiektuaren inguruko azken informazioa eman dute:

Azaltzen da proiektuaren ezaugarriak eta xedea, Lurgida turismo jasagarria, lehen sektorea eta tokiko garapena, Euskal Herriko sustraien ezagutza sakona eta kohesioa bultzatzea xede duen gida da, hala nola Euskal Herria barne zein kanpo bisitariei herri bezala erakustea. Gidan ondare inmaterial ezberdinak jasotzen dira; autokarabanak eta furgonetak lo egiteko lekua uzten duten etxaldeak, era honetan bisitariek tokiko produktuak ezagutzeko, dastatzeko eta erosteko aukera daukate, baita ekoizleen eta baserritarren bizimodua ezagutzeko ere; gainera ibilbide ezberdinak ere prestatu dira.

Ondoren Hartu-Eman proiektua azaldu dute. Azaltzen da zer garatu den proiektuan 2019. urtean eta gaur egun jasotzen diren arloak:

- Energia burujabetza
- Elikadura burujabetza
- Etxebizitza eta hirigintza
- Lurra lantzeko erraztasuna
- Ekonomia soziala
- eraldatzailea
- Euskara
- Politika Feministak eta Parte hartzea

Hurbiltzen programaren ekintzak ere azaldu ziren eta 2019an landutako senidetzeak:

- Lau Uharteak
- Asteasu – Sartaguda jardunaldia
- Iparra-Hegoa



Azkeirik Ikerbiltza programari ekin zizaion, Ikerbiltza Euskal Herriko unibertsitateetan sorturiko ezagutza eta jakintza herrien garapenerako mesedetan jartzen duen proiektua da, 2019an hurrengo arloak garatu dira:

- Energia burujabetza:
  - Aiaraldean eta Aezkoan: ikerketa honen bitartez tokiko baliabideak eta beharrak aztertu dira.
- Gizarte ekonomia eraldatzailea: Ikerketa honen helburua, egungo errealtatearen argazkia lortzea izan da.
- Elikadura burujabetza:
  - Leitza-Larraun: Parte-hartze prozesua.
  - Oiartzualdea: Ekoizleak indartu.
  - Sakana: Lur komunalen azterketa
  - Lea-Artibai: Tokiko produktuen lekua bertako merkataritzan
  - Busturialdea: Ekoizleen bideragarritasuna.

Bestetik, Ikerbiltza programaren barruan ikerketa orokora bat ari da egiten Udalbiltza Aztikerrekin Euskal Herrian kohesiorako egin diren ekimenak eta beren eragina aztertzeko.

### **LAUGARRENA.- 2019ko urtearen kitapenak: Partzuergokoa eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoko kontuen onarpena**

Bilerarako bidalitako dokumentazioaren artean zeuden kontu-hartzailearen txostenen gainean egin da puntu honen azalpena.

Alde batetik, 2019ko Partzuergoaren kitapenari dagokionez, 465.500,00 euroko sarrerak eta 371.088,00 euroko irteerak izan dira, haietatik obligazioen %86,81a



(322.131,81 euro) ordaindu da eta kobraketei dagokionez, %88,72a (413.000,00 euro) kobratu da, 89.412,00 euroko emaitza positiboa izanik. Hala bada, aurtengo ekitaldiko diruzaintzako gerakina guztira 332.578,46 eurokoa da.

Jabi Asurmendi jaunak azaldu duenez, sarrera eta irteeren artean horren alde handia izatearen arrazoia, gastuei dagokie. Izan ere, 2019an zergati ezberdinak suertatu dira horrela izateko, alde batetik zuzendari ohiak lana amaitu zuen ekainean eta zuzendari berria irailean sartu zen, bestetik idazkaritzan ere mugimenduak egon dira eta hilabete debora tarte ezberdinetan idazkari gabe egon da Udalbiltza, azkenik, Ipar EHko teknikariak lana utzi zuen irailean eta teknikari berria kontratatu arte, egungo lan poltsaren zerrenda agortuta dagoenez, komunikazio arduradunak hartu ditu teknikari honen ardurak, tartean baja laboralen bat ere eman da.

Euskal Garapen eta Kohesioa Fondoari dagokionez, gastuetan, aurreikusitako obligazioen %12,70a (825,50 euro) baino ez da gauzatu. Diru-sarreretan, % 0,00a (0,00 euro) gauzatu da. Horietatik, obligazioen %100,00a (825,50 euro) ordaindu da eta kobrajeten, % 100,00a (0,00 euro) kobratu da.

Itxietako ekitaldiei dagokienez, ordaindu gabeko saldoak 0,00 euro dira eta kobratu gabeko saldoak 8.500,00 euro.

Hala bada, aurrekontu emaitza doitua -825,50 eurotakoa izan da eta gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 51.517,36 eurotakoa da.

Jabi Asurmendik azaldu duenez, gaur egun EGKF tokiko garapenerako erabiltzen da, egun Hauspotu programarako, alegia. Hauspotu programa 2020an garatzen ari denez, 2020an erabiliko da eskuragarri dagoen diru hori eta era berean, 2020ko Udalbiltza Partzuergoaren aurrekontuan zehaztutako diru partida sartuko da EGKFaren aurrekontuan 2020an.

Kontuak onartuak izan dira gehiengo osoz.



## **BOSGARRENA.- 2019ko urtearen kitapenak: Partzuergokoa eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoko kontuen onarpena**

Zuzendari jaunak Partzuergoaren kasuan proposatzen duen aurrekontua 456.100,00 eurokoa da eta Euskal Garapen eta Kohesio Fondoa erakunde autonomoaren kasuan, 49.040 eurokoa. Ondoren emailaz bidalitako dokumentazioaren gainean nondik norako nagusien azalpena egin du. Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren aurrekontua Hauspotu programara bideratuko direla azaltzen du Jabi Asurmendik.

Bestetik, nabarmentzen da proiektuek dituzten diru partidarik handienak; Lurgidaren kasuan 33.000 euro, garapen berriak eta itzulpenak egiteko eta Ikerbiltzaren kasuan 25.000 euro, horietatik zati handi bat Ikerketa Orokorren 2. zatiari dagozkio.

Aurten ere, 49.000 euro ingresatuko dira Garapen eta Kohesio Fondoan, tokiko garapen proiektuak gauzatzeko.

Galdera edo ekarpenik dagoen galdetuta ezezkoa erantzuten denez, honako akordioa hartzea proposatu du Jabi Asurmendi lehendakariak:

Lehena.- 2020ko aurrekontua eta berau gauzatzeko araua hasieran onartzea:

### **SARRERAK**

<b><i>Kapitulua</i></b>		<b><i>Partzuergoa</i></b>	<b><i>EGKF</i></b>
4	Toki Entitateen Administrazio Orokorreko Transferentziak	456.000,00 €	49.039,91 €
3	Salmentak	100,00 €	100,00 €

### **GASTUAK**



<i>Kapitulua</i>		<i>Partzuergoa</i>	<i>EGKF</i>
1	Langileria Gastuak	262.484,27 €	0,00 €
2	Ondasun Arruntak eta Zerbitzu Gastuak	130.179,89 €	48.540 €
3	Finantza Gastuak	495,93 €	499,91 €
4	Transferentzia Arruntak	59.039,91 €	0,00 €
6	Inbertsio Errealak	3.900,00 €	0,00 €

Bigarrena.- Gipuzkoako Aldizkari ofizialean argitaratu eta 15 egunetan jendaurrean jartzea.

Hirugarrena.- Erreklamaziorik jasoko ez balitz aurrekontua behin betiko onartutzat jotzea, beste erabakirik hartu behar izan gabe.

Gaia bozketara jarrita, kontuak onartzen dira baiezko osoarekin.

### **SEIGARRENA.- 2020ko proiektuak**

---

Asteasuko ordezkari bezala Batzorde Eragileko kide den Pili Legarra andereak, Berriatuako ordezkari bezala Batzorde Eragileko kide den Jon Arriola jaunak eta Udalbiltza Partzuergoko lehendakaria eta zuzendaria den Jabi Asurmendi jaunak 2020an zehar garatuko dituzten proiektuak eta ekimenak azaldu dituzte.

1) Hauspotu. Herriak bizituz! Programa: 2020an zehar garatuko da tokiko garapen proiektu hau, urtearen lehenengo hilabeteetan proiektua azaltzeko eta intereseko proiektuak zein kezkek ezagutzeko eta Hauspotu ezagutarazteko batzar eta bisita ezberdinak egin dira proiektuak bere barnean hartzen dituen eskualdeetan.





Bestetik, Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritutako formakuntza saio ezberdinak eskainiko dira ekintzaileei bideratuta: Gares, Argantzun, Agoitz, Galoze, Enkarterri eta Izura.

Hurrengo fasean bidaltzen diren proiektuak jasoko eta hautatuko dira.

Urtearen amaieran, proiektuaren balorazioa eta 2021 urteari begira planteamendua garatuko da.

## 2) Lurgida. Euskal Herriko gida turistikoa.

Aurten azken garapenak burutu dira eta eduki ezberdinak sortzen eta elikatzen joan gara urteko lehenengo hilabeteetan: udalerrien informazioa, ondare inmateriala, ibilbideak eta etxaldeak. Ondoren aplikazioa, webgunea eta eduki guztia berrikusi eta probatu dira eta ekainaren amaieran zabalduko da publikoki.

Hortik aurrera eduki berriak sortzen eta elikatzen joango dira eta baita garapen berriak ere, besteak beste, agenda atala, non udalerrri ezberdinetako ekitaldi edo ekimen kulturalak jasoko diren.

## 3) Ikerbiltza. Euskal Herriko unibertsitateetan sorturiko ezagutza eta jakintza herrien garapenerako mesedetan.

COVID-19 pandemiaren eraginez, abiatutako ikerketek geldiunea izan dutela azaltzen da, bestetik, Energia Burujabetzaren inguruan egin nahi ziren ikerketak bertan behera geratu direla adierazten da, izan ere, Eibarko Fakultatearekin batera egin ohi dira ikerketa hauek eta lehenengo Zaldibarko krisialdiak eta ondoren osasun krisialdiak kolpatua izan da fakultate hau.

Gauzak horrela, 2020an Beterrin (Gipuzkoa) hurrengoak dira: Beterri elikadura burujabetzaren inguruko ikerketa abiatuko da eta Debagoienan beste bat.



Bestetik, Ikerketa Orokorraren lehenengo zatia amaitzeaz dago eta laster aurkeztuko digute emaitza eta udazkenean publiko egingo da. Udazkenetik aurrera Ikerketa Orokorraren bigarren zatia Aztikerri esleituko zaio eta kohesio diskurtsoak aztertzea izanen du xede.

4) Hurbiltzen. Euskal Herriko kohesiorako senidetze programa

Bilerak geldituak izan dira COVID-19 pandemiaren eraginez Ipar Euskal Herriko udal bozak atzeratuak izan baitira.

2020an lau Uharteen arteko nahiz Sara eta Ataunen arteko senidetzeak bultzatuko dira.

5) Hartu-Eman. Euskal Herriko Esperientzien Bankua. Egitasmo honetan 2020rako erronkak azaldu dira, esperientzia berriak sartzeaz gain, burujabetza teknologikoa, hezkuntza eta kultura aniztasuna lan ildo berriak ere txertatzeko asmoa dago. Halaber, nazioarteko esperientziak aztertzen hasiko dira 2020ren amaieran.

6) Artea eta Kultura esperientziaz guneak udalerrietan. Proiektu hau berria da eta 2021ean garatuko balitz ere 2020an hasiko da proiektu honetan lanketa egiten.

Proiektuaren helburuak dira euskarazko imajinarioa garatzea (afektiboa eta pentsaera) eta Euskal Herriko historia eta kontakizuna garatzea eta hedatzea, hau guztia artea eta kulturaren bitartez.

Hala bada, 2020. urtearen azken hiruhilekoan hasiko gara udalerriekin eta sortzaileekin harremanak egiten, era berean kultura teknikari bat ere kontratatuko dugu. Helburua da 20-25 udalerrri eta sortzaile lortu.

2021. urtean artistak esleituko zaizkie udalerriei eta egonaldiak zein esperientziaz guneak sortuko dira. Era honetan, literatura, antzerkia eta zinema arloetan lanak garatzen joango dira herri hauetan. Ondoren lanen argitalpena, hedapena eta



bitartekaritza etorriko da, proiektu guzti hauek herrietan landu ahal izango dira sortzaileen parte hartzearekin, eskoletan, irakurketa taldeetan, aretoetan, eta abarretan. 2021. urtearen amaieran, balorazioa eta hurrengo urteko planteamendua egingo da.

7) Koop57rekin egindako lankidetzak.

Jabi Asurmendik azaltzen du lankidetzak hau osasun krisialdiaren eta krisialdi ekonomikoaren aurrean langabezi tasari eta zerbitzu ezari aurre egiteko neurri bezala etorri dela. Helburua da interesatuta dauden udalek, mankomunitateek edota garapen agentziek funtsa jarrita eta Koop 57k funtsa jarrita, Ekonomia Sozial Eraldatzailean oinarritutako proiektuak martxan jartzen laguntzea horrela nahi duten ekintzaileei. Hitzarmenak bilateralak lirateke Koop57 eta udalen, mankomunitateen edo garapen agentzien artean Udalbiltzaren bitartekaritza eta aholkularitzarekin. Jarritako funtsa hamar aldiz utzi ahal izango litzateke maileguetan ekintzaileek proiektuak abiatzen laguntzeko.

8) Burujabetza teknologikoa. Egitasmo hau ere berri da, aurten hasiko da lanean datozen urteetan garatzen joateko. Oso problematika zehatz batetik abiatu da proiektu hau diseinatzeko, Euskal Herriko eremu eta etxebizitza askotan ematen den arrakala digitala, alegia. Arrakala digital hori arrazoi geografikoengatik (auzoan, herrian, eskualdean konexio ezagatik) edo arrazoi ekonomikoengatik (hainbat etxetan eta hainbat familiak ezin dute Internet zerbitzua ordaindu).

Honi aurre egiteko, teknologia burujabetzaren inguruko esperientziak aztertzea eta konexio eza dagoen lekuetan edo interesa dagoen lekuetan sare publikoak eratzea. Era honetan, egun kalitatezko konexioa ez dagoen eremuetara konexioa eramango litzateke eta sare publikoak irizpide publikoen arabera kudeatuko lirateke. Gaur egun finantziario publikoa sare pribatuak eratzeko bideratzen da diru-laguntza edo lehiaketa publikoen bitartez. Lan politikoa ere egin beharko da erakunde ezberdinek lagun diezaieten udalerriei sare publikoak eratzen eta horretara dedikatzeko baliabide publikoak sare pribatuak hedatzeko erabili beharrean.



Proiektu honetarako Izarkom irabazi asmorik gabeko kooperatibarekin lantzen ari da eta lankidetzaren beste helburu bat telekomunikazio operadore nazionala bultzatzea ere bada Euskal Herriko eremu administratiboen arteko komunikazioak errazteko eta orekatzeko xedearekin.

9) Puntu honekin amaitzeko, Jabi Asurmendik azaltzen du eztabaidarako dokumentu bat prestatzen ari garela eta asmoa aurten amaitzea eta Kontseilu Nagusian partekatzea dela.

Urteko kudeaketa plana onartu da.

### **ZAZPIGARRENA.- 2020ko lan egutegiaren onarpena**

Lehendakari jaunak urteko jai egunei buruzko azalpena egin du. Aurreko urtean bezala, Ipar Euskal Herrian eta Hego Euskal Herrian izango diren jai egun kopurua berdindu dela nabarmendu da, horretarako hiru lurralde juridiko-administratiboetako egutegiak aztertu, zenbait jai egun kendu eta beste batzuk komunak jarritz.

2020rako proposatzen den egutegia onartzea erabaki da aho batez.

### **ZORTZIGARRENA.- Partzuergokide berrien onarpena: Legorretako udala.**

Jabi Asurmendi jaunak egin du puntu honen azalpena. Azaldu duenez, Legorretako udalak partzuergo-kide izateko eskaria luzatu dio Kontseilu Nagusiari.

Gaia eztabaidagai jarri eta gero, honako erabakia hartu da aho batez:

1.- Legorretako udalak partzuergo-kide izateko egindako eskariak onartzea eta hortaz, aipatu udalerrria partzuergo-kide bezala onartzea.



2.- Partzuergoko Kontseilu Nagusian Legorretako udalaren ordezkari izango den hautetsia izendatzeko eskatzea.

3.- Akordio hau Legorretako udalari jakinaraztea.

### **BEDERATZIGARRENA.- Soldata igogeren onarpena**

Patxi Bengoak jarduneko idazkari bezala egiten du puntu honen azalpena.

Gaia bozketara jarrita, soldata %2an igotzea onartzen baiezko osoarekin.

### **HAMARGARRENA.- Galderak eta Iradokizunak**

Ez da galderarik egon. Lehendakariak bertaratutakoei eskerrak eman eta dizkie eta deialdi honen helburua bete delarik, Lehendakariak batzarraldia amaitutzat ematen du, arratsaldeko 7ak eta 10 minutu direnean, nik Idazkari bezala ziurtatzen dudalarik.

IDAZKARIAK

